

Jakinarazpena: Eskaren emaitzarekin Tokiko Gobernu Batzarraren diktamena

Erabakiaren datuak:

Eguna	2024/07/16
Organoa	Tokiko Gobernu Batzarra

Tokiko Gobernu Batzarrak, goian aipatzen den egunean, **ondoko hau erabaki du:**

Kulturako, Euskarako eta Turismoko Ordezkaritzak, elkarteen lanaren garrantziak jabetuta, beren helburuak betetzeko ahaleginean, diru-laguntzak ematea proposatzen du, bere aurrekontu baliabideen arabera eta jarraian zehazten diren datetan Tokiko Gobernu Batzarrak onartu eta argitaratutako araudiarekin bat:

Dirulaguntzen deialdia	Oinarriak noiz onartu ziren	Oinarriak GAOn noiz argitaratu ziren
Euskararen eguneko egitarauak	2024/02/20	2024/03/01

JASO DIREN ESKAERAK

Guztira 9 eskaera jaso dira.

DESBIDERATUAK IZAN DIREN ESKAERAK

Behean aipatutako entitateen dirulaguntza eskaerak beste diru laguntza lerro batetara **desbideratuak** izan dira

Erakundea	IFZ	Proiektua	Nora izan den desbideratua
ASOCIACIÓN PARA LA PROMOCIÓN DEL COMERCIO Y DEMÁS ACTIVIDADES ECONÓMICAS DEL BARRIO DE SAN MARTÍN	G67923797	KORRIKA KULTURALA BSM	Jarduera zehatzak / Jarduera zehatzak

ESKABIDEEN BALORAZIOA

Organo instrukziogileak eskaerak aztertu eta gero, balorazioa egiteko xedez sortutako Balorazio Batzordeak

txostena egin du eta bertan azaldu dira egindako azterketaren emaitzak

Proiektuen balorazioak eta ondorioak erantsitako txostenean jaso dira.

Horiek horrela, ordezkariak honek honako erabakiak hartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari:

ERABAKIAK:

1. Behean aipatutako **dirulaguntzak ematea**, deialdiaren oinarriek araututakoaren arabera:

Erakundea	IFZ	Proiektua	Puntuak	Kopurua
LOIOLAKO HONTZA KULTUR ELKARTEA	G20595146	EUSKERAREN EGUNA LOIOLAN.	67	1.400 €
Igeldoko Herri Kontseilua	G20578258	Euskararen Eguna 2024 Igeldon	69	1.500 €
IBAI IKASTOLAKO IKALEEN GURASO ELKARTEA	G20176079	EUSKARAREN EGUNA 2024	71	1.500 €
Mamur Aisialdi Taldea	G20702049	Amarako euskararen eguna	71	1.200 €
ZUBIETA LANTZEN	G20952289	Zubieta biziberritzen	66	1.500 €

3. Behean aipatutako **eskaerak ukatzea**, kasu bakoitzean ematen diren arrazoiengatik, oinarri arautzaileekin bat:

Erakundea	IFZ	Proiektua	Arrazoa
HIK HASI EUSKAL HEZIKETARAKO ELKARTEA	G20772513	Hik Hasi Udako Topaketa Pedagogikoak 2024	Ez dator bat deialdiaren xedearekin
Egia Bizirik Auzo Elkarte	G20801502	Elkarteak duela urte askotatik garatzen duen zine forum programan euskarazko filmak sartzea	Ez dator bat deialdiaren xedearekin
A.VV. DEL BARRIO DE BIDEBIETA - BIDEAK	G72510423	ZINEBIDE 2024 (EUSKARAZ)	Ez dator bat deialdiaren xedearekin

3. 7.100 €-ko **gastua** 2024ko Gastuen Aurrekontu Orokorreko Euskara programari dagokion 0219.060.481.02.00 kontu-sailaren kontura ordaintzea.

4. Oinarrietan aurreikusita dauden 7.500 €tatik 7.100 € bakarrik gastatu direnez, geratzen diren 400 euroak "Auzoetako plan integralak" dirulaguntza lerrora pasatzea, oinarrietan azaltzen den bezala

5. Onartutako zenbatekoen %70a irizpena onartutakoan **ordaintzeko agintzea**, eta gainerakoa, dirulaguntza justifikatzeko eskatutako dokumentuak aurkeztu eta balioztatzean.

6. Erabaki hau **jakinaraztea** udal iragarki-oholean argitaratuta.

Eta hala jakinarazten da, jakin dadin eta behar diren ondorioetarako :

1.- Hamabost laneguneko epea izango dela, jakinarazi eta biharamunetik, diru laguntzari uko egiteko. Diru laguntza onartutzat joko da lehen aipaturiko epean berriaz ukorik adierazten ez badute.

2.- Erabaki honek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta hortaz honen aurka berrikusteko errekurtsoa harri ahal izango dela Tokiko Gobernu Batzordearen aurrean eta horretarako hilabeteko epea dagoela, edo bestela zuzenean aurkatu daitekeela bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.



➤ Euskara

Esandako epeak jakinarazpen hau Udaletxeko iragarki taulan jarri den hurrengo egunetik hasiko dira 2024ko uztailaren 17an jarria izanik.

Donostia,

Euskara Zerbitzuaren burua